



Euskararen berri OLAtu gainean

2015eko apirileko ALBISTEAK

Oiartzungo udala: Euskaraz egindako errenta aitortenak %35era iristeko erronka bota diete oiartzuarrei

Diru kontuak ere euskaraz egiteko deia egin dute Udalak, Ttur-tturrek eta finantza erakundeetako ordezkariak Oarsoaldeko

Uema: <http://www.uema.eus/2015/04/15/euskaraz-egindako-errenta-aitortenak-5era-iristeko-erronka-bota-diete-oiartzuarrei/>

'Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz' kanpainak gero eta babes handiagoa du Donostian

Donostiako Udalak iaz abiatu zuen merkataritzan eta ostalaritzan euskara bultzatzeko kanpainak harrera ona izan du tabernen eta denden artean. 600dik gora gunek bat egin dute lehen bi faseetan.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/110201/merkataritzan_eta_ostalaritzan_ere_euskaraz_kanpainak_gero_eta_babes_handiagoa_du_donostian.htm

Euskal izenak aukeratzeko laguntzeko APPa

Batura Mobilek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin Euskal Izenak izeneko APPa kaleratu berri du. Bertan euskarazko pertsona izenak kontsultatu ahal dira, eta izen guztiek Euskaltzaindiaren oinarriak betetzen dituzte.

Bilbao euskaraz: <http://www.bilbaoeuskaraz.eus/euskara/albisteak/euskal-izenak-aukeratzen-laguntzeko-ap>

EkoLinguA, hiztunak ahalmentzeko solas-joko berria

Hizkuntza-ekologiaren kontzeptu gakoetara hurbiltzeko karta-jokoa da EkoLinguA solas-jokoa eta, Europako Batzordearen babesarekin, FUND proiektuaren baitan sortu den PlayDecide eztabaida-jokoan du oinarri metodologikoa.

Elhuyar: <http://komunitatea.elhuyar.org/eraldaketa-elhuyar-da/2015/04/24/ekolingu-hiztunak-ahalmentzeko-solas-joko-berria-2/>

Xamarri elkarrizketa: "Ez gara ohartzen, baina arras hauskorra da eraikitako guztia"

Ogibidez irakaslea da Juan Carlos Etxegoien Xamar (Garralda, 1956), eta aspalditik ari da euskararen inguruko ikerketa eta dibulgazioan lanean. Aho bizarrik gabe mintzo da gaiaren inguruan.

Nafarroako hitza: <http://nafarroa.hitza.eus/2015/05/01/ez-gara-ohartzen-baina-arras-hauskorra-da-eraikitako-guztia/>

Elkarrizketa Ur Gorostiaga Seaskako zuzendariarekin: "Frogatu da euskara bizirik ikusi nahi dugula ekaitz gaixto guztien aitzinean"

Heldu den ikasturtean Seaskak hiru ikastola berri sortuko ditu. Proiektu horientzat, besteak beste, Azkarateko Herri Etxearen sostengua jaso du. Ziburuko ikastolak bizi duen egoerari konparatuz, lurralde ezberdinen auzapezen artean jarrera-kontrajarriak azaltzen dira.

Kazeta: http://kazeta.naiz.eus/fr/info_kz/20150504/frogatu-da-euskara-bizirik-ikusi-nahi-dugula-ekaitz-gaixto-guztien-aitzinean

Elkarrizketa: Agustina Pontesta. Lezoko Bake Epailea

Euskara izan da Pontestaren bizitzaren ardatza. Frankismo garaian hasi zen Lezoko Ikastolan eskolak ematen, eta, gerora, euskaragatik sartu zen bake epaile. Erretiroa hartzera doa, baina euskararen inguruan lan egiten jarraitzeko asmoa dauka.

Berria: http://www.berria.eus/paperekoa/1909/046/001/2015-05-03/justizia_euskalduntzeko_egin_dudan_lanak_eta_borrokak_asko_bete_nau.htm

"Mila esker, Garitano"

Sare sozialen bitartez azkar zabaldu zen Almeriako prentsaurrekoan jazotakoa. Gaizka Garitanori euskaraz aritzeagatik kargu nola hartu zioten ikusten den bideoa ez ezik, Garitanoren jarrera txalotzen zuten hainbat eta hainbat mezu zabaldu ziren, herritar, kazetari eta politikariak ere bai:

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/110369/mila_esker_garitano.htm

Osasun zerbitzuetan euskarazko arreta bermatzeko, Berdin elkarteak aurkeztu dute

Osasun zerbitzuen erabiltzaileak eta langileak elkartu nahi dituzte, helburu bakarrarekin: Euskal Herriko osasun sisteman arreta euskaraz eskaintzen dela ziurtatzea.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/110415/osasun_zerbitzuetan_euskarazko_arreta_bermatzeko_berdin_elkartea_aurkeztu_dute.htm

Guneak euskalduntzeko bertsolaritzak duen ahalaz

Bertsoa ez da tresna makala euskara ikasten ari direnen motibazioarako eta erdalguneeetan arnas guneak sortzeko. Hala adierazi dute Egoitz Zelaia, Manex Agirre, Miren Artetxe eta Ruben Sanchezek Bertsoa.com webgunean.

Argia: <http://www.argia.eus/blogak/estitxu-eizagirre/2015/04/22/bertsolaritza-guneak-euskalduntzeko-erreminta/>